

## Euskal medikuntzak XVIII mende amaieran izan zuen bere loraldia

A.O. / DONOSTIA

Euskal medikuntzak garapen eta hazkunde garrantzitsuak izan zituen XVIII mende amaieran eta XIX mende amaieratik 1936. urtera arte. Hala adierazi zuen atzo Donostian Luis Sanchez Granjel Salamancako Unibertsitateko Irakasle Saridunak. Euskal Medikuntzaren Profil Historikoaz mintzatu zen Eusko Ikaskuntzak antolatutako Euskal Medikuntzaren Historiari Buruzko ihar-dunaldien barne.

Era berean, euskal medikuntza garatzeko arrazoi sozioekonomiko eta kulturalak azaldu zituen Sanchez Granjelek. «XVIII mende amaiera aurretik Euskal Herriko mediku garrantzitsuenak alde egin zuten Euskal Herriatik, eta Erregeen Gorte edo medikuntza fakultateak zituzten hirietan jarri ziren lan egiten» adierazi zuen Sanchez Granjel irakasleak. Baina, beste herrialdeetarako ihesaldi horrek amaiera izan zuen XVIII mende amaieran, Salamancako Unibertsitateko irakaslearen esanetan, bai demografikoki bai ekonomikoki ere Euskal Herria indartzen delako. «Euskal Herria ekonomikoki indartzen denean osasun erakundeak sortzen dira, eta beraz, mediku bakan



Luis Sanchez Granjel.

garrantzitsuok erraztasun osoz egin dezakete beren lana hemen» zehaztu zuen.

### DONOSTIA MEDIKUNTZAREN GUNEA

Sanchez Granjelen iritziz, medikuntza errealitate sozioekonomikoari lotuta dago, eta lurralde bat demografiko eta ekonomikoki garatzen ez bada medikuntzaren arloa ere azpigaratuta geratuko da. Medikuntzaren garapenarekin batera, Espainiako eta beste lekuetako medikuak Donostia aldera hurbildu zirela azpimarratu zuen Sanchez Granjelek. «Mediku frantsesak ere etorri ziren hona, Ipar Euskal Herriak eskaini ezin zituen aukera ekonomikoak zituelako Donostiak» argitu zuen Sanchez Granjelek.

# Legebiltzarrak Langraizko gartzela bisitatzeko erabakia hartu zuen atzo

Neurria Salhaketak bultzatu du preso atzerritaren egoera aztertzeko

**E**usko Legebiltzarraren Giza Eskubide Batzordeak Langraizko gartzela bisitatzeko erabakia hartu zuen atzo, bertan dauden preso atzerritarren egoeraren berri izateko. Espetxeraturik dauden pertsonen gorabeherak, afrikarrenak batez ere, ezagutzeko da erabakiaren helburua.

DONOSTIA

Akordioa aho batez hartu zuten atzo Eusko Legebiltzarrean, Salhaketak elkarteko partaideen ekimenaren ondorioz. Parlamentariaren aurreko agerraldian «tratamendu eta joera arrazista eta diskriminatzaileak» salatu ditu erakunde humanitarioak, batez ere interno afrikarrekiko.

Zuriñe Sanz presoei laguntzeko elkarteko kidearen arabera, Langraizten dauden bederatzirehun laguntatik heren bat estatu espainolek kanpokoak dira. Atzerritar hauek, gehienak afrikarrak, Golkoko Gerraren hasieran bildu zituzten gartzela honetan.



Preso atzerritarren egoera aztertzea da erabakiaren helburua.

Salhaketako partaideak adierazi zuen bezala, urteko lehen hiru hilabeteren buruan murriztu egin zitzaizkien irteera baimenak bigarren graduko preso kanpotarrei. Irailaren amaieran, gainera, sekzio irekiko hirugarren graduko gatibu afrikar guztiak bigarren graduko moduloetara eramane zituzten «inolako justifikaziorik gabe».

Sanz andereak azaldu zuenez, izen arabiar baina hiritartasun eroparra duten zenbait presok neurri hauen

kontra protesta egin zuten eta nazionalitatea frogatu bezain laster berriz eramane zituzten sekzio irekiera. Hau gertatzen ari zen artean, polizia presoak bisitatzeko hasi zen kanporatze espedienteak irekitzearen berri emateko. Salhaketaren ustetan, polizia gartzelan sartzea «legez kanpkoda». «Behin behineko askatasuna ez emateak aukera bakarra eskaintzen dio presoari: kanporaketa gaur ala gartzelan segitu eta bihar Estatutik jaurtiki».

# HILDAKOAK



## BIZKAIA

**BILBO**  
Juan Julondo Ereño, 98 urte.  
Marcelino Bijandi Gonzalez de Langarika, 82 urte.  
Olga Alfaro Zabal, 56 urte.  
Luis Pablo Frias San Emeterio, 68 urte.  
Jon Bilbao Erkoreka, 58 urte.  
Gabriel Perez Fernandez, 85 urte.  
Maria Candida de Laresgoiti Torrealdei, 76 urte.

## ARTEA

Francisco Javier Candina Bilbao, 46 urte.

## BARAKALDO

Julian Plagaro Almeida, 29 urte.

## FORUA

Micaela Agirre Zorrozueta, 83 urte.

## GERNIKA

Jose Lezama Bilbao, 71 urte.

## GETXO

Modesta Oribe Quintana, 70 urte.

## MUSKIZ

Adrian Martinez Pardo.

## TRAPAGARAN

Roberto Peña Garcia, 24 urte.  
Garbiñe Azpioleta Vivanco, 23 urte.

## GIPUZKOA

### DONOSTIA

Juan Pedro Rodriguez Arrondo, 40 urte.

Alfredo Madina De La Peña.

Gerardo Cayela Arizkuren, 71 urte.

Magdalena Lapeira Garmendia, 51 urte.

Mikel Albisu Garcide Andoin, 20 urte.

## ASTIGARRAGA

Jose Ramon Bastida Aranburu.

## DEBA

Jose Manuel Azpiazu Muniozgueren, 88 urte.

## ERRETERIA

Gregorio Fernandez Fernandez, 30 urte.

## LASARTE

Jose Maria Agirre Elizegi, 47 urte.

## LAZKAO

Manuel Rodriguez Sotelo, 64 urte.

## ORIO

Antonio Agirresarobe Aristi, 65 urte.

## PASAI SAN PEDRO

Teresa Miguez Pazos, 91 urte.

## TOLOSA

Miguel Maria Etxezarreta Bastarrika, 61 urte.

## URNIETA

Maria Angeles Bermudez Ribera, 72 urte.

## ARABA

### GASTEIZ

Isaac Elizondo Lasarraga, 77 urte.

Felix Ortiz de Mendibil Ibañez de Mendoza, 92 urte.

Consuelo Rios Del Bao, 69 urte.

## MIRANDA

Maria Dolores Diaz de Tuesta Gomez, 76 urte.

## NAFARROA

### IRUÑEA

Antonio Fernandez Garcia, 78 urte.

Felisa Albeniz Gonzalez, 75 urte.

Maria Luisa Eroles Guallart, 89 urte.

## ARTAXONA

Venancio Sola Jimeno, 82 urte.

## AZKOIEN

Miguel angel Itarte Jimenez, 49 urte.

## ISABA

Jesus Ederra Perez, 88 urte.

## LIZARRA

Jesus Morteruel Otxoa, 60 urte.

## MENDAZA

Joaquin Berruete Zuñiga, 90 urte.

## ORONÓZ-MUGAIRE

Juana Opoca Lizaso, 89 urte.

## LAPURDI

### BAIONA

Gerard Tastet, 86 urte.

Jacques Laplace-Claverie.

## DONIBANE LOHIZUNE

Aristide Bernard, 91 urte.

## ZIBURU

Mathilde Boulin, 91 urte.

## Drogomenpekotasunerako aholku batzordea eratu dute Gasteizen

L.K.G. / GASTEIZ

Drogomenpekotasunean euskal administrazio eta erakunde sozialek martxan jarriko dituzten ekimenak koordinatuko dituen Drogomenpekotasunerako Euskadiko Aholku Batzordea eratu zuten atzo Lakuan.

Espainiako mota horretako aurrenekoa da eta Eusko Jaurlaritzak ekainean onartutako dekretuari esker sortu dute. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Idazkaritzaren ustetan, «ekimen soziala eta administrazio publikoaren arteko etengabeko elkarrizketa izango du lehen-tasuneko helburua», orain arte nekez heldutako arloak sendotzeko nahiz «drogomenpekotasunetikiko sentikortasuna ugaltzeko» ere.

Aholku batzorde honek atzo egin-

dako lehen bileran Hiru Urterako Ekintza Planaren prestakizunak hasi zituen eta datorren urteko erdialdean gerturik izatea espero dute. «Toxikomania aurrea hartu, zaindu eta bergizarteratzerakoan» Euskal Autonomi Elkartearen dagoen errealitatea jasoko du 1993, 1994 eta 1995. urtetarako plan honek, eskura diren ahalbideak eta premia zuzen neurriak zehazteaz gainera.

Hainbat dira aholku batzordean ordezkatutako erakundeak, Jesus Antonio Perez Garcia-Arropide lehendakaria izanik. Eusko Jaurlaritzak, diputazioak, udalak, sindikatuak edo justizia epaitegietako partaideekin batera, Askagintza, Etorikintza edo Gizakia Helburu bezalako erakundeek ere hartuko dute parte.



Drogomenpekotasunerako aholku batzordea Lakuan eratu zuten atzo. OIALDE

## Euskaraz izango diren sormen tailerrak hastear Iruñean

IRUÑEA



Iruñeko Udalak euskaraz emango diren sormeneko tailerren programa prestatu du. Tailer hauetako hirugarren edizioa da aurtengoa eta eskainiko diren gaiak bost hauek dira: argazkigintza, pintura, modelaketa-eskultura, sukaldaritza eta tapizgintza. Begiraleak euskaldunak izanen dira eta gai hauetan espezializatuak.

Programa hau hamalau urte baino gehiago dituzten euskaldunentzat zuzenduta dago, beraien hizkuntza erabiltzeko gune bat izan dezaten. Aldi berean, tailer hauek sormena pizten duten bitartean, lan artistikoak egiteko gaitasuna gehitzen dute.

Ikastaroak Iruñeko Gaztedi etxearen lokaletan emanen dira. Hasiera azaroaren 12an izango da eta apirilaren 9a arte iraungo dute. Izena emateko epea hurrengo ostiralean irekiko da eta astelehenean, azaroak 11, bukatuko da. Larunbatean ere egiteko aukera dago, baina goizetik beharko du izan, beste egunetan arratsaldeko zazpietatik bederatzietara izango baita. Interesatuak 2.500 pezeta ordaindu beharko dute matrikula egitean.